

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2 milioi euro bideratuko du marketin-ekintzarako eta turismoa garatzeko

*Beste ekintzen artean, publizitate-kanpaina bat egingo du eta Turismoko webgunea eguneratu*

Miércoles, 27 de marzo de 2013

Nafarroako Gobernuak 1.972.150 euro bideratuko du aurten marketinari eta turismo-garapenari lotutako hamabi programa egikaritzeko, Turismoko Plan Integrala 2012-2015ean jasotakoa sektoreari iragan otsailean baimendutako milioi bat euroko [laguntzekin](#) batera.

Aurreikusitako hamabi jarduketak turismoa komunikatzeko eta sustatzeko bideratuta daude batez ere, turismo-jarduerari eusteko xedearekin; halaber, bideratuta daude: merkaturatzeari bultzada emateko turismoko operadore eta bitartekoei produktu eta zerbitzuen salmentak areagotze aldera; turismo-produktuak hobetzeko eta sortzeko (seinaleztapena, dinamizazioa...); eta teknologia berrien aldeko apustua egiteko.

Aipatutako 3 milioi euro horiekin, Nafarroako Gobernuak ekonomiaren beste sektore batzuen gainean era garrantzitsuan eragina duen sektore bati laguntza ematen dio eta krisiaren aurrean erresistentzia handiagoa duena. Turismoa eskualdeko BPGaren % 5 eta % 6 artean dago (% 8 Iruñean), 29.000 pertsona dituen biztanleria aktiboarekin eta 2003. urtearekiko % 8,8 igo dena. Zerbitzuen sektoreko biztanleria aktibo guztiaren % 14 da eta Nafarroako biztanleria aktiboaren % 8,8. Eskualde horrek turismoko 1.400 ostatu ditu, duela hamarkada bat baino % 63,3 gehiago. Foru Komunitateak urtean 8,8 milioi bisitari hartzen ditu –turistak eta txangozaleak–, urtean 668 milioi euro baino gehiagoko gastuarekin.

### Programak

Departamentuak 2013an egingo dituen programak honako hauek dira:

**1.- Publizitatea:** 855.000 euro Espainiako komunikabideetan egindako kanpainetarako eta berariazkoak Frantziako, EAEko eta Nafarroako merkatuetarako, bai eta `on line´ marketineko beste ekintza



Nafarroako Erreinuaren kanpaina.

batzuk ere, ohikoa ez den publizitatea...

**2.- Nafarroako Turismoko Ataria eguneratzea** ([www.turismonavarra.es](http://www.turismonavarra.es)): 205.000 euro telefono mugikorretarako aplikazioetarako, diseinua modernizatzeko, ikus-entzunekeo materialak sartzeko, konexioa Inforeybo datu-basearekin...

**3.- Komunikazioa eta Harreman Publikoak:** 204.000 euro turismoko prentsa-kabineterako, prentsarako bidaietarako, sustapenerako elkartrukeak eta beste zenbait ekintza preskriptoreekin.

**4.- Azoka eta aurkezpenetan izatea:** 160.000 euro salmenta dinamizatzeko honako leku hauetan izateagatik: Donostiako Sevatur Azoka; Bartzelonako acción: Bilboko Expovacaciones Azoka; Salón Biarritz Expo; BBF Rutland Waters; Feria 50+ Holandan; Word Travel Market Azoka, eta abar.

**5.- Turismoa merkaturatzeko emandako laguntza:** 146.000 euro Katalunia eta Madrilgo salmenta-foroetarako, estatuko eta nazioarteko merkataritza dinamizatzeko, azterketa-bidaietarako eta turismoko saltzaile nahiz bitartekariei laguntza emateko lanak.

**6.- Materialak berriz argitaratzea** turismo-helmuga zabaltzeko eta merkaturatzeko: 95.000 euro.

**7.- Turismoko zonaldeak dinamizatzea:** 124.000 euro garapen eta sektore pribatuko tokiko erakunde eta taldeen inplikazioa duten ekintzetarako.

**8.- Turismoko produktuak dinamizatzea:** 60.000 euro produktu adierazgarritan (Errege Bardeak, Irati, Ujué, Erriberri, Bertiz, bide berdeak, Santiago bidea...) zehar-produktuetan (gastronomia eta ardoak, Santiago bidea, merkataritza-jarduera) egindako jarduketetarako eta Paisaien Ibilbidea abian jartzeko.

**9.- Turismo-produktuen klubak:** 25.000 euro turismo-produktuei buruzko klub berriak abian jartzeko (hegaztiei buruzko Birding kluba, adibidez).

**10.- Turismo-seinaleztapena:** 70.000 euro Errege Bardeetarako, Arbaiungo Arroila, Mendukiloko kobak, kanpinak, Irantzu eta Olivako monasterioak, Bertizko Jaurerria, Plazaolako bide berdea, besteak beste.

**11.- Teknologia berriak:** 10.000 euro proiektu pilotu baterako kultur eta naturako ondarea interpretatzeko eta IKTak turismo-bulegoetan jartzeko.

**12.- Turismoko Behatokia:** 18.150 euro turismo-egoeraren hilean behingo txostenak egiteko.